

# JARDUN SEGURTASUNEZ ONLINE

Jarraitu itzazu gomendio hauek, ziberiruzurren biktima izan ez zaitez.

1

## Zure kodeak zuretzat bakarrik dira

- Alda ezazu eman dizugun sartzeko gakoa, eta jar ezazu asmatzeko erraza ez den gako bat. Buruz ikasi beharko duzu, eta ez duzu inon idatzi behar.
- Online Bankan sartzeko gakoa eta eragiketak egiaztatzeko gakoak (OTP deituak) isilpekoak eta besterenezinak dira. **Ez itzazu inorekin partekatu inongo bitartekoren bidez** (telefonoa, SMSa WhatsAppa, emaila, etab.).

2

## Jasotzen dituzun mezuei (SMSa, emaila, etab.) dagokienez,

- Kutxabankek SMS bidez bidal diezazuke egiten ari zaren eragiketa baieztatzeko gakoa. **Irakur ezazu arretaz, eta ziurta ezazu egiten ari zaren eragiketari dagokiola.**
- Ez zaitetz fidatu SMS edo emailak iristen bazaizkizu honakoa ohartaraziz: zure kontuak edo txartelak blokeatu egin direla edo egingo direla, edo banka elektronikora konektatzen ari den gailu berri bat antzeman dela, eta abar, eta esteka batean sakatu behar duzula arazo hori konpontzeko.
- Batzuetan, horrelako iruzurrezko mezuak irits daitezke Kutxabankeko SMS bidezko elkarrizketa baten barnean. Beti, zalantzarik txikiena izanez gero, jar zaitetz harremanetan gurekin.

**Gogoratu: Kutxabankek inoiz ez dizu bidaliko link bat agertzen den segurtasun mezurik.**

3

## Deitzen badizute,

- **Gogoratu Kutxabanketik inoiz ez dizugula deituko inongo pasahitzik edo gakorik eskatzeko;** horregatik, deia Kutxabankeko zenbaki ezagun batetik egiten badizute ere, ez zara fidatu behar datu pertsonalen bat edo gakoren bat eskatzen badizute.
- Ez zara fidatu behar telefonoz deitu eta esaten badizute birus bat antzeman dutela zure ordenagailuan edo gailuan, eta ez ezazu instalatu eskatzen dizuten aplikaziorik edo ez utzi zure gailuetara urrutitik sar daitezen.



# JARDUN SEGURTASUNEZ ONLINE

Jarraitu itzazu gomendio hauek, ziberiruzurren biktima izan ez zaitez.



## Berma ezazu segurtasuna zure gailuetan eta aplikazioetan

- **Egiazta ezazu zure gailua Kutxabankeko Banka Mugikorreko appean**, zure eragiketen segurtasuna hobetuz.
- Instala itzazu beti aplikazioak market edo web ofizialetatik. Ez ezazu gaitu jatorri ezezaguna duten aplikazioak instalatzeko aukera zure mugikorrean, ez eta email, SMS, WhatsApp eta abarretako jaisteko esteka bidez ere.
- Zure gailuak aukera eskaintzen badizu, sar zaitez Banka Mugikorreko appera ahal dela hatzaren edo faceIDren bidez.
- Eduki itzazu eguneratuta sistema eragilea eta aplikazioak/programak zure gailuetan (mugikorrean, tabletean, ordenagailuan eta abarretan), eta instalatu antibirus bat horietan.



## Beste gomendio batzuk

- Konfigura itzazu txartelekin egiteko transferentzien mugak eta eragiketak (erosketak, kutxazainetan eskudirua ateratzea, internet bidezko erosketak, etab.), zure beharretara egokitu daitez. Blokea itzazu zure txartelak lapurreten kasuan edo galtzen diren kasuan.
- **Aktiba itzazu jakinarazpenak**, zure kontuen eta txartelen mugimenduak kontrolatzeko.
- BIZUM erabiltzen duzunean, egiazta ezazu ondo zer eragiketa mota egin behar duzun: **ordainketa bat jaso** behar baduzu, egiazta ezazu benetan dirua bidaltzen ari direla, eta ez eskatzen. Gogora ezazu **BIZUM bat jasotzeko inoiz ez duzula inongo gakorik sartu beharrik izango**.

Begira ezazu gure atariko  
**Erne! Online Segurtasuna**  
atalean, zibersegurtasun neurrien arloan  
egunean egoteko.

